

Agurra



Lasai, ez noa, Donostiara iritsi besterik ez bainaiz egin. Madriletik Donostiara iritsi naizen bezain pronto, agurrak batera eta bestera ematen hasi naiz etengabe. Hemen herrikoak eta auzokoak ezagutzen ditut. Aurpegiak bizitza pertsonalaren historia darioten islak dira, eta horiek agurtzen ditut goiz eta gau kaleetan barrena. Hori da niretzat bizitzako gasolina. Horrek ematen dit kilometroak egiteko indarra eta sua. Hortik bizi naiz.

Madrilen aurpegiak eta istorioak ezezagunak zaizkit, eta metroan nire aurrean doan gizonari begira jartzen natzaio lotsagabe. Nondik zatoz? Nora zoaz? Zein koloretakoak dira zure ametsak? Amesten al duzu? Baina nola asmatu begi-

ko ninien argia ere ikusten ez badizut? Nola topo egingo dute aurrez-aurre begiek begirada altxatzen ez baduzu? Nola topo egin elkarren bila ez bagabiltza?

Ez naiz lotsatzen bestearen beharra dudala esatean. Ez nau lotsatzen esateak ni neu izaten jarraitzeko bestearen beharrean nagoela, irribarre eske, begirada xamur baten limosnaren zain. Ez naiz lotsatzen.

Agurraren eta diosalaren dinamika sortu beharko genuke hemen, gure arteko harremanen giro berri eta malguari heldu nahi badiogu. Eta agurra ikasi egiten da goizeko etxekonekoari emandako agurraren zentzuari heltzen badiogu.

Norbaitekin topo egiten duzunean, zer esan ez dakizula? Hara ba, hemen, goizean-goiz, agurraren sokatik datorren hitz labur eta iraultzaile sorta: «kaixo», «agur», «egun on» eta aukeran, «eunon». Hitzak bizitza alda dezake, hitzaren indarrak egoera berriak sortu eta gizakion etxeko atearak irekitzen dituelako. Beraz, agur.